

# HERRI ITUNAREKIN DUGUN KONPROMISOA DEFINITZEKO IBILBIDEA



**Norberaren konpromisoa.**  
**Aukeratutako Herri Itunaren**  
**esparruetan zuon antolakundeak**  
**hartuko dituen konpromisoak**  
**definitzea.**

## KONPROMISOAK DISEINATZEKO JARRAIBIDEAK

Hemen dituzue **zuen konpromisoa(k) definitzen laguntzeko jarraibide** soil batzuk.

**1**

**LEHENIK, GOGORATU ZER ARLO ETA GAI JO DITUZUEN LEHENTASUNEZKOTZAT ZUEN ANTOLAKUNDETIK EDO ESPAZIOTIK BERDINTASUNAREN BIDEAN AURRERA EGITEKO.**

- Pentsatu zuen entitatean identifikatuta dituzuen eta elkarrizketan lehentasuna emandako erronka edo beharrekin zerikusia duten arlo eta gaietan.
- Pentsa ezazue zein arlo eta gaitan eman dezakezuen zuen antolakundearen ezagutza eta esperientzia.
- Pentsa ezazue zer arlotan duzuen benetako eragina edo izan dezakezuen eragina.

**2**

**BIGARRENIK, HARTU DITUZUEN KONPROMISOAK ZEHAZTU.**

- Gogoratu konpromisoak Herri Itunaren 10 jarduera-eremuetako bati edo batzuei lotuta egon behar direla.
- Konpromiso zehatzak eta posibleak izan behar dira, 2026ra arte har daitezkeenak.

- Konpromisoak, posible izan daitezen, bideragarriak izan behar dira teknikoki eta ekonomikoki nahiz denboraldi eta antolamenduari dagokienez.
- Konpromiso berritzaileak proposa ditzakezue, honako hauen arabera: ideia, martxan jartzeko modua, duten eragina, transferentzia-ahalmena, bultzatzen duten eragile motak, xede-publikoa, etab.